

# PuLunPe

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA

172\*. Zenbakia



*Negu minean  
zuriz estaliren ditun bazterrak  
hire soina, sabela eta izterrak*

*Negu minean  
zuriz estaliren ditun herriak  
hire ahoa eta ezpain gorriak*

*Negu minean  
zuriz estaliren ditun hagin en adarrak  
eta busti eginen hire begi nabarrak*

*Negu minean  
zuriz estaliren ditun sahatsak  
haizeak orrazturen hire adatsak*

*Negu minean  
hormatu eginen ditun inguruko ur latsak  
eta hire ohoretan iraganen ditun arratsak*

*Patziku Perurena,  
XX. mendeko poesia kaierak*



Joxean Iturralde, Goldarazko banatzailea

## “Oso osorik emakumez osaturiko udal taldea behar dugula uste dut”



Goldaratzen egiten du Joxeanek Pulunperen banaketa. 12 etxetan egiten du banaketa, eta ia guztiek irakurri dezakete, etxe bat kenduta gainontzekoak euskaldunak direlako. Portzentaje aldetik Imozko herririk euskaldunena izanen da zalantzarik gabe. Abeltzaina ofizioz, baina konpromiso handia dauka egun bailararekin, Imozko alkatea baita. Kontu kontari aritu gara Etxalekun, Imozko udaletxean:

### Zertaz bizi zarete Goldaratzen?

Herriko lau etxek herrian bertan dute jarduera ekonomikoa, abeltzaintzarekin lotuta, eta ez dute herritik joan beharrik lan egitera. Eta ostatua ere badugu. gainontzeko etxeetan kanpora joaten dira lanera, izan lruñera edo gertuagoko herrietara.

### Autobideak eta 2,5km-ko mendateak bereizten zaituzte Imozko gainontzeko herrietatik, Larraunekin lotura ere izan duzue?

Aralar mendikateko azken herria gara, eta beraz, Aralar larko jarduera ekonomikora lotuta egon gara beti: artzaintza, abeltzaintza, basoa... Garai batean, mendiko eta basoko lanek garrantzia handia zutenean lotura handia genuen Oderitz eta Madotzekin. Eta gaur egun ere ehiza kontuek lotzen gaituzte.

### Imozko alkate zaren aldetik, zein aldaketa nabar-

### menduko zenuke azken urteotan?

Nik esatea ere! Orokorrean udal irekiago bat izatea lortu dugula uste dut, eta harreman zuzenagoa dugu biztanleekin. Eta bestalde, martxan jarri ditugun proiektuak oso garrantzitsuak izan dira. Udaletxearen berri-tze lanek itxura irekiago bat eman diote, Muskizko Itsasoneak bizitza eman dio herriari, eta bertan bizitzeko gogoa piztu, eta Latasako geltokia kanpokoentzat bailararen eskaparate bat izanen da, beste dimentsio bat emanen dio Imotzi.

### Zein ondorio izanen ditu biztanleendako?

Beste elkargune bat izanen da, sinergiak sortuko dituen. Bailarako jarduerak eta produktuak erakusteko lekua izanen da, eta jardueri hauspoa emanen die. Frontoiak ere erabilera gehiago izanen du.

### Datorren urtean hauteskundeak... Zer asmo?

Hauteskundeak iristeko gogoa dut. Oraindik ez dugu deus erabaki, baina nik uste dut aldaketa erradikala behar dugula. Legegintzaldi honetan gizonez eratutako udal taldea izan dugu, eta desoreka hori orekatzeko pentsatzen dut ez del nahikoa hiruzpalau emakume sartzea beste okin batera. Oso osorik emakumez osaturiko udal taldea behar dela pentsatzen dut nik. Eta ez diot aurten izan duten presentzia eta indarragatik, hemen beharrezkoa delako baizik.

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Eurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

Emaila: [pulunpe@gmail.com](mailto:pulunpe@gmail.com)

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan.

Koordinatzaileak: Lur Gil Rey eta Itziar Perez Argomaniz

Maketazioa: Lur Gil Rey

Tirada 1.600 ale | Inprimategia: Gertu

Lege gordailua: NA 721/93

Inprimategira Martxoaren 28an bidalia



## PULUNPE ALDIZKARIAREN HILABETE HONETAKO ZENBAKIAREN INGURUKO OHARRA:

172\* zenbakia ezarri diogu hilabete honetako aldizkariari, joan zen hilabetekoa 172.a izanik. Izan ere, 167.etik 169.era salto egin genuen konturatu gabe, eta 168. zenbakirik ez da existitzen. Horregatik, eta hemendik aurrera aldizkariaren zenbaketak modu egokian jarrai dezan, 172\* zenbakia izanen da honakoa, eta datorren hilabetekoa 173.a izanen da, normaltasunari eutsiz.

**NESKAK ESKUZ, FRONTENIS (NESKAK), PALETA GOMAZKO FINALAK**

**APIRILAK 7, ARRATSALDEKO 17.00**

**LATASAKO FRONTOIAN**

1. Paleta Goma Bigarren Maila  
Zepelo / Juanjo – Alex / Riki
2. Frontenis (Neskak)  
Ohiane / Judith – Mari Jose / Amaia
3. Neskak eskuz  
Mirian / Miren – Leire / Olatz
4. Paleta Goma Lehen Maila  
Koldo / Beloki – Sergio / Jon

Basaburuko ta Imoske kirol batzordea

IRAKURRI  
GOZATU  
OPARITU

1001  
mundu

## IBILGAILUEN AZTERKETA TEKNIKOA APIRILEAN:

4an eta 5ean; Alkotzen  
6an; Eltzaburun  
9an; Gerendiainen  
13an; Ziaurritzen  
16an; Lantzen  
18an; Olaguen

## ULTZAMAKO UDALA: UDALEKO ADMINISTRARI BATEN ALDI BATERAKO KONTRATZIOA.

info+ : [www.ultzama.eus](http://www.ultzama.eus)

14 ABRILAK 14 SABADO

#EzDaPosible

**NO ES TERRORISMO**

**JUSTIZIA**

ALTSASUKOAK

**MANIFESTAZIOA**

17:30



## ZOZKETA MUNDIALAREN ARGAZKIEN EGILETZAREN OHARRA:

Joan zen hilabetearen ohar hau jartzea pasa zitzaigun; zozketa mundiala amaituta egindako erreportajearen argazkiak **PATXI OSKOTZENAK** dira.



## ARIKETA HIPOPRESIBOEN TAILERRA TALLER DE EJERCICIOS HIPOPRESIVOS



Egutegia: Ostegunak apirilaren 19an, 26an eta maiatzaren 3an eta 10ean  
Ordutegia: 18:15-19:15  
Lekua: Caracol Proiektua (Lizaso)  
Prezioa: 40 euro / pertsona \*  
Lekuak: 10-12 pertsona (16-65 urte bitartekoak)

Izena emateko: 948305353  
apirilaren 5a arte

Emakume gazteentzat oinarrikoa da eta erditutako eta helduentzat beharrezkoa da. Zaintza zerbitzua behar izanez gero, abisatu izena ematean.  
Egutegia/ordutegiarekin arazoak izatekotan, esarguzu!

OHARTXOA: Arropa eroso eta esterila beharrezkoa da.

\* Prezio bereziak hornelako egoeretan: langabezian, ikasleak, etab. Informa ezazu.

Antolatzailea/ Organiza:



Calendario: Jueves 19, 26 de Abril y 3, 10 de Mayo  
Horario: 18:15h a 19:15h  
Lugar: Proyecto Caracol (Lizaso)  
Precio: 40 euros por persona \*  
Plazas: 10-12 personas (entre 16-65 años)

Inscripción: 948305353 hasta 5 abril

Esencial para las mujeres jóvenes y necesaria para mujeres que hayan dado a luz o que tengan más edad.

Si necesitas servicio de cuidado, hazlo saber al apuntarte.  
Si tienes problema con fechas/horario, dínoslo.

NOTA: Se necesitará ropa cómoda y estéril.

\*Precios especiales para situaciones como desempleo, estudiante, etc. Infórmate.

Laguntzailea / Colabora:



## ULTZAMAKO IGERILEKURAKO 2018KO KONTRATAZIOAK:

- Zerbitzu anitzetarako 2 langile
  - Garbitasun eta harreragile lanetarako langile 1
  - Sorosle lanetarako 2 langile
- Eskaerak aurkezteko azken eguna: apirilak 6  
info+ : [www.ultzama.eus](http://www.ultzama.eus)

Egundoko esperientzia bizi ezazu uda honetan!

2018KO GAZTE BOLUNTARIOENDAKO  
AUZOLANDEGIAK

EGIN AURREINSKRIPZIOA  
ONLINE APIRILAREN 3TIK 17RA

BARCELONA IRUÑA VALENCIA TARRAGONA  
FRANZUA CADIZ ERRIUSAR PULPINDA  
CEUTA KANARIAR IRANDIA  
ITALIA TURKIA...  
JETA ARKODU GENIACOD

Más información contacta:  
[www.deportegovernadormaria.es](http://www.deportegovernadormaria.es)  
[compedinteg@navarra.es](mailto:compedinteg@navarra.es) 948 42 38 00

EUSKARALDIA

EUSKARALDIA  
365  
EGUN

"Ostiral kulturalak antolatzea gustatuko litzaizuke? Kontzertuak, hitzaldiak, antzerkiak..."

**ZATOZ DINAMIZAZIO BATZORDERA!**

Hilabeteko lehengo ASTEARTEETAN biltzen gara arratsaldeko 17:00etan gizarte etxean. Anima zaitetz!

Email bidez informazioa jasotzeko: [kulturamugi@gmail.com](mailto:kulturamugi@gmail.com)

## “Nire etxeko historiak inspiratu ninduen tesi hau egiteko, beraz, nire etxeari, **Ramorena**, eta amaren etxeari, **Bortanea**, dedikatu diet lana”

Amaia Iraizoz Cia (Aritzu, 1987) 4 urte eta erdi eman ditu Nevadako Unibertsitatean, Ameriketako emigrazioak Nafarroan izan zituen ondorioak aztertzen. Aita Ramorena etxekoa du, Aritzukoa, eta ama Bortanea etxekoa, Urritzolan. Bi familien artean 5 belaunaldi emigrante zenbatu daitezke eta horrek bere tesia egiteko eragin diola onartzen du. Aldi berean, ordea, argi zeukan Anue ez zuela ikertuko, eta zehazki Aezkoatik Ameriketarako emigrazioa aztertu du, 1847 eta 1915. urteen bitartean. Eta ongi gainera, atera daitekeen notarik onena eskuratu baitzuen abenduan, tesia aurkeztu zuenean.



### **Zergatik Aezkoa?**

Ez dakit... hasieran pentsatu nuen Erro ikertzea, diru-laguntzak zeudelako, baina gero artxiboan Aezkoako dokumentazio asko zegoela konturatu nintzen. Aldi berean oso gutxi zegoen ikertuta eskualde honi buruz eta batez ere horregatik, ez beste edozein arrazoi berezirengatik. Nekiena zen Anueri buruz ez nuela egingo, horretaz ziur nengoen. Aita Aritzukoa, Ama Urrizolakoa, familia daukat Alkotzen, Auzan ere bai... denetan emigranteak daude eta ez nuen nahi familiaren datuak aurkitzea. Batez ere kezkatzen ninduen biraitonaren informazioa topatzea, Kuban egon zelako eta ez nuen jakin nahi esklabista izan zenik edo horrelako zerbait ikustea. Gehienak, hala ere, Venezuela eta Argentinara joan ziren.

### **Eta tesia bukatu duzula ez zenuke Anue aztertu nahi?**

Gustatuko litzaidake egitea, bai, ikusteko patroia bera ematen den edo ez. Kuriositatez bai, baina ez nuke zerbait akademikoa egingo. Lehen esan bezala, sentimenduak agertzen dira, objektibotasuna galtzen da, eta horregatik ez dut zerbait akademikoa egin nahi Anueri buruz.

### **Hala ere, tesian atera dituzun ondorioak Anuen errepikatu daitezkeela uste duzu?**

Gure eskualdera bai eraman daitezke, aldaketa txikiak egongo dira Aezkoa eta Anueren artean, baina ez Euskal Herriko beste lekuetara, herri eta eskualde oso ezberdinak baitaude.

### **Amerikara egon zen emigrazioa aztertu duzu, zer ondorio aurkitu dituzu?**

Hemen izan zuen influentzia interesatzen zitzaidan.

Aezkoako herri txikietan izan zituen ondorioak. Ez hainbeste ekonomikoak, baizik eta soziologikoak. Batez ere gabezia interesatzen zitzaidan, pertsonak. Joandakoak hemen uzten zuten hutsunea herrian eta familian. Nortzuk joan ziren eta nortzuk geratu ziren, nola geratzen ziren etxe horiek. Horretarako ezkontza-hitzarmenak, testamentuak, erroldak, joan zirenen erregistroak, doteak, herentziak e.a. aztertu nituen. Orduan ikusi dut askotan emaztea bakarrik geratzen zela bizpahiru seme-alabekin, 20 urtez, nagusiak 4 urte besterik ez zituela. Ingelesez “splithouseholds”, edota banandutako familiak deitzen diot tesian.

### **Nortzuk joan ziren eta zergatik?**

Askotan esaten da seme-alaba nagusiak ez zirenek alde egiten zutela, herentziarik jasotzen ez zutenek. Baina Nafarroan ez geneukan “mayorazgoa”, herentzia ez zuten zertan nagusiek jaso eta askotan baita etxeko jabeek edota herederok ere egiten zuten alde. Nik ikusi dudanez abentura bila joaten ziren. Gainera, askotan zorraz beterik zeuden, etxea galtzen zutelarik, zorrak ordaintzeko diruaren bila eta itzultzerakoan etxea berberosteko alde egiten zuten. Askotan ere familiak berak laguntzen zien, inbertsio gisa: seme-alaben bidaia ordaindu, eta han lortuko zuten dirua bueltan espero zuten. Testamentuetan ikusi dut nola deseredatzen zituzten batzuk “bidaia ordaindu zitzaiolako eta ez duelako dirurik bidali”.

### **Gehienak gizonezkoak ziren emigratzen zutenen artean?**

Ikusi dudanez ez dago hainbeste ezberdintasunik kopuruan. Adibidez 120 emigrante zerrenda batetik 70 gizonetakoak ziren eta 50 emakumeak. Historian askotan emakumea gizonaren atzetik ipintzen dute baina ez da horrela. Emakumeen artean gainera argi ikusi daiteke “abentura bila” helburu horren garrantzia. Askotan esan da senarraren atzetik zihoazela, baina nik aztertu ditudan artean gehienek bakarrik bidaiatzen zuten, eta han ezkontzen ez zirenak ez ziren itzultzen. Pentsatu behar da jaioterrietan familiaren pean bizi zirela, familiak erabakitzen zuen norekin ezkondu behar ziren. Hemen bakarrik espero zezaketen seme-alabak zaintzea, han lana egiteko eta euren dirua lortzeko aukera zuten. Ameriketara joatea euren buruen jabe izateko aukera ematen zien emakumeei, eta oso harrigarria da gizonetako gehienek itzuli egiten zirela 20 urte pasa eta gero, baina emakumeen artean, ezkongabe zeudenen artean, itzuli ziren bi kasu bakarrik aurkitu ditut. Eta gizonetako patroia bera jarraitzen zuten, itzultzerakoan finkak edota etxeak erosten zituzten.

### **Eta gelditzen zirenak, nolakoak zen beraientzat?**

Ba imajinatu...ez zen batere erraza. Emigrazioa ez zegoen ongi ikusita, emigratioaren aurkako kanpaina handiak zeuden. Joaten ziren emakumeak prostituzioan lan egingo zutela esaten zuten herrian. Baina geratzen zirenentzat ere ez zen erraza. Herrian gelditzen ziren emazteak eta seme-alabak estigma handia sufritzen zuten, era guztietako zurrumurruak eragiten zituzten, imajinatu Aritzu bezalako herri batean, 50 biztanlera iristen ez garen herri batean: zertan ibiliko den senarra, beste norbaitekin ezkonduko zela, eta horrelako gauzak esaten zieten. “White widow” deitzen diegu, “alargun zuriak”, izan ere, moralaren aldetik alargunak balira bezala agertzen ziren gizartearen aurrean, baina senarra bizirik zuten. Bestalde, ordea, senarra alde egiten zuenean emazteak hartzen zuen etxearen hardura, beraiek kudeatzen zuten senarrak bidaltzen zuen dirua eta “pres-tamistak” bihurtzen ziren, horrek boterea ematen zien. Hala eta guztiz ere, Aezkoan ezin ziren batzarretara joan, baina eroldan familiaren buru gisa agertzen ziren. Hori emakumeen aldetik, seme-alabentzat ere ez zen erraza, oso txikiak zirela egiten zuen alde aitak, ez zuten beren oroimenik, “orphan children” edota umezurtz deitzen diegu. Eta askotan gertatzen zen seme guztiak emigratzen zutela, estigmatik ihes egiten alde batetik, aitaren eredia jarraituz bestetik.

### **Ondorio soziologikoak interesatzen zaizkizu gehien, baina ekonomikoak ere egon ziren, ezta?**

Bai, gutxi izan ziren aberastu zirenak, baina batzuek lortu zuten eta dirua inbertitu zuten euren jaioterrietan. Adibidez, Txikirrin deituriko emigrante batek, nire pertsonaia kuttunetarikoa bat dena, neskendako eskola bat eraiki zuen. Bestalde iturri bat ere eraiki zuen, baina azken hau herrikoek suntsitu egin zuten, inbidiak jota. Emigratutakoek orokorrean ura, elektrizitatea, errepi-deak jarri zituzten, komunikazioak hobetu zituzten. Baina batez ere obsesio txiki hori zuten edukazioarekin, oi-

narrizkoa zela pentsatzen zuten, baina Txikirrin ez ezik, mutilentzako eskolak eraikitzen zituzten besteek.

### **Eta tesia alde batera utzita, nolakoak zen zure eguneroko bizitza Renon?**

Oso ongi, primerakoa, bihar bertan bueltatuko nintzen. Oso lagun onak egin ditut, unibertsitateko zentroa nire familia zen. 4 irakasle, 5 ikasle, editorea, idazkaria eta liburutegikoa ginen, azken hau ere euskalduna zen. Bazkal-tzera elkarrekin joaten ginen, afariak egiten genituen... Ikasleen artean Edurne Arostegi zen lagun minetarikoa, gurasoak euskaldunak ditu baina San Franciscon jaioa da bera.

### **Historia gurutzatuak bizi izan dituzue, ez al da horrela?**

Bai, nire kasuan nire arbasoak emigratutakoak eta gero itzultitakoak dira, eta bere kasuan han geratu ziren. Historia ikastea ez da kasualitatea izan, nire etxeko historiak inspiratu ninduen tesi hau egiteko eta nire etxeari, Ramorenari, eta amaren etxeari, Bortaneari, dedikatu diet lana.

### **Zure arbasoen istorioak entzungo zenituen etxean, kontatuko diguzu baten bat?**

Bai, kontu asko entzun ditut, adibidez, nire tataraitonak zorra handiak zituela Argentinara emigratu zuen seme bakarrarekin. Itzultzerakoan zorrak ordaindu zituen eta etxea erosi zuen eta hara non, senarra eta biok, baserri hura berritzen ari gara bertan bizitzeko, Aritzutik gertu. Tesia bukatu eta bertan bizi nahi nuen, eta 1870ean erositako etxe horretan biziko gara, zikloa itxiko banuen bezala da.



## Martxoak 8ko emakume greba arrakastatsua izan zen Basaburuan eta Ultzaman



**B**asaburuko Bilgune Feminista oso pozik agertu da grebako emaitzarekin. Egun historikoa bizi zutela diote, lanuztea nabarmena izan baitzen bailaran. Aizarotz, adibidez, hutsik nabaritu zuten,



diotenez, emakumeok borrokan zeuden seinale, eta dendak eta eskolak greba babestu zutelako. Ohianzabal eskolako hezitzaile eta jangelako emakumezko guztiak bat egin zuten lanuztearekin eta aita brigada bat aritu zen goizeko geldialdiaren bitartean eskolan laguntzen. Basaburua eta Imotzen 11:00etan zen elkarretaratze deialdia, Ohianzabal eskola parean, eta gero Iruñera joan ziren hango ekitaldietan parte hartzeko. 20:00etako manifestaldian landa eremuko zutabeen joan ziren.

Ultzaman ere, 11:00etan elkarretaratu ziren emakumeak, Larraintzarko ikastetxe parean. Emakumeen egunean kontzentrazioa egiten den lehendabiziko urtea izan da Ultzaman eta 100 bat lagun bildu ziren, irudi ikusgarria Udaleko Berdintasun Sailaren ustetan. Bertara gerturatu ziren inguruko zenbait lantegiko langileak ere, Maierkoak, batik bat. Gainera, Larraintzarko Ikastetxean emakume gehienek greba egin zuten, hezitzaileen artean 20, jantokikoen artean zerbitzu minimoetan zeuden 4 ez ezik, beste guztiek, eta baita administrariak ere. Egun arrakastatsua, beraz, Beatriz Irureta, zuzendariak baieztatu duen bezala.

Baina emakumeen egunaren ospakizuna ostiralarte luzatu zen zenbait tokitan. Ostegunean itxi eta greba egin ondoren, Jauntsarasko Apeztegiberri ostatuan brindisa egin zuten ostiralean, martxoaren 9an, 20:00etan, eta gero, 21:00etan, Berueteke ostatuan manifestuaren irakurketa eta afaria.





## Rugby gaupasak 15 urte betetzen ditu



**A**pirilaren 21ean antolatu du Baztango Rugby Taldeak Larraintzarko frontoian. Tiketak 7 eurotan egongo dira salgai, 25 eurotan afaria barne erosiz gero. Gaupasan ateratzen duten diruak taldea mantentzen laguntzen die zati handi batean; izan ere, 35.000 euro inguruko aurrekontua behar dute urtero. Getxo, Gernika, Bilbo, Ordizia, eta Gasteizen jokatzeko partidetakira joateko erabiltzen dute dirua, besteak beste.

Gainera, kategoria ezberdinetako inskripzioak ordaindu behar dituzte. Gaupasaren helburua, Larraintzarko frontoian afaltzeko 400 lagun eta guztira mila bat per-

tsona biltzea da, azken urteotan lortu duten bezala. Hala ere, geroz eta zailagoa dela onartzen dute, traba burokratikoak zorrotzagoak direlako eta jendeak azkeneko momentura arte ez duelako sarrera erosten.

Horrek urduritzen ditu taldeko kideak, gaupasa prestatzeko izugarritzko lana egiten baitute. Osora 40 bat pertsona parte hartzen dute antolakuntzan: egun Rugby taldean daudenak eta aspaldi kirola utzi zutenak ere. Aurten Skabidean eta Muga taldeek joko dute, gainera, Los Tajudos del Norte, urtero bezala. 20:30ean hasiko da festa Larraintzarko frontoian apirilaren 21ean.

## Berriz ireki du Ultzamako Bentak

**M**artxoaren 16an ireki zuen landa hotelak, 2 hila-bete itxita egon ondoren. 50 urte zituen sukaldaria berritu dute, beste mende erdia iraun dezan, Inmaculada Barberena Olagüe, jabeak dioenez. Zenbait atzerapenen ondoren, pozik ireki dituzte berriz Ultzamako Bentaren ateak eta martxoaren 23an ospatu zuten, galdur-bestan, obran lan egin duten igeltsero eta langile guztiekin. Hemen duzue sukalde berriaren argazkia:



## Buruzgain taldea Espainiako txapeldun

**E**spainiako lehenengo mailako txapelketa irabazi berri du Ultzamako Buruzgain pilota taldeak, eta honen ondorioz ohorezko mailan arituko da datorren urtean. Taldeko lehenengoak sailkatu ziren, eta finalaurrekoa Salamancako Paladin taldearen aurka irabazi ostean, Errioxako Barberito Laren aurka aritu ziren. Otxandorenak buruz burukoa galdu zuen, baina binakakoan Iriartek eta Sarasak lortutako garaipenarek esker, tantoen diferentziagatik txapeldun suertatu ziren.



## “Altsasukoak Aske” erakus- keta Basaburuan ikusgai



A izarotzko Kulturetxean egon da astebete, martxoaren 24ra arte, eta Ttikiena haureskolaren inaugurazioan ipini zuten ere bai. Dozena bat argazki eta testuek biltzen dute Altsasukoen auziaren kronologia. Altsasukoak Aske Plataformak egin du erakusketa, gertatutakoa azaltzeko Euskal Herrian zehar.

Izan ere, 2016ko urrian taberna batean hainbat gazte eta bi guardia zibilen arteko liskarraren ondoren, 11 gazteri Terrorismoa egozten zaie, bakoitzari 12 eta 60 urte bitarteko espetxea eskatzen zaielarik. 3k oraindik Madrilko kartzela ezberdinetan dispertsaturik daramate horrez geroztik.

Hurrengo asteetan bailarako beste herri batzuetan jarriko da erakusketa, Jauntsaratseko Apeztegi-berri Ostatuan batik bat. Basaburura iritsi baino lehen Ultzaman ere ikusi dute jada, martxoaren 16an Lizason egindako elkartasun afarian, hain zuzen ere. Ainhua Galainek eta Oihana Amorosek osatzen duten Kantex taldeak, jo zuen bertan, 60 bat pertsona bildu zutelarik. Altsasukoak Aske eta Altsasu Gurasoak plataformek, gainera, apirilaren 14ean Iruñean egingo den manifestaldira joateko deialdia egin dute.

## Antsietate tailerra Larraitzarren

Antsietatea eta estresa kontrolatzeko tailerra egingen dute Larraitzarko osasun etxean. Gaitz hauek sufritu eta kontrolatzen ikasi nahi dutenentzat zuzenduta dago.

Bi jardunalditan egingen da tailerra, 3 ordukoa bakoitza, eta 10 pertsona egon ahalko dira gehienez. Partehartzaileek antsietateari buruz gehiago ikasi dezaten da helburua (zer den, nola adierazten den, eragiten duten faktoreak...). Eta horrekin batera beste hainbat gauza landuko dira: pentsamenduak, sentimentuen identifikazioa, arnasketa abdominala eta erlajazio muskular sakoneko teknikak.

Informazio gehiago jaso zein izena emateko Ultzamako osasun etxera edo Jauntsarats zein Olagueko kontsultorioetara deitu beharko duzue.

## Cedernak antolaturiko formakuntza saioak



Cederna Garalurrek Leitzaldeko instituzio eta eragile zenbaitekin batera “Bertatik bertara” formakuntza saioak antolatu ditu, elikadura katean parte hartzen dutenekoizle, ostalari zein saltzaileei bideratuta.

Bi saio daude egiteke oraindik. Lehena “Legedi higieniko sanitarioaren malgutasuna eta salmenta zuzenaren legea” apirilaren 5ean, eta bigarrena, “Salmenta bide laburrak”, maiatzaren 3an. Leitzako udaletxean izanen dira biak.

## Coworkinga Ultzaman



Ultzamako udal gobernu berriak aspalditik zekarren ideia da hau, eta hemendik gutxira praktikan jarri daiteke. Ultzamako udaletxearen zati bat hutsi dago oraindik, eta bertan ofizio ezberdinetako langileak hartzeko espazio bat eskaintzea da asmoa. Coworkingaren ideiak espazioa, gastuak, materiala eta abar elkarbanatzeko filosofia dakar, langile autonomoentzat bereziki gastu gutxiago suposatu dezan. Oraindik ez dago ezer zehazturik, baina denbora gutxiren buruan jar daiteke martxan. Zuntz optikoa Larraitzarra iristearekin batera izan daiteke.



## Txoko Txiki berrituaren inaugurazioa Erasoko ihotean

Osor giro onean ospatu zuten Erasoko ihotea martxoaren 10ean, eta Txoko Txikia berritu dutenez inauguratzeko aukera izan zuten. Bertan egin zuten bazkari autogestionatua (nor berak kudeatutako bazkaria), eta gero etxez etxe joan ziren erronda txiki bat eginez. Udabe, Urritza eta Latasako biztanle asko hurbildu ziren festara eta Erasokoekin batera Txoko Txikian amaitu zuten ospakizuna, musikaz gozatuz.

### Lizason eta Muskitzen ere ospatu dituzte ihote berantiarrak

Erasokoekin batera azkenak izan dira Lizasoko eta Muskizko ihoteak. Batean zein bestean mozturirik egun eta gauz aritu ziren. Lizasokoaren kasuan, kontzertu berezi bat izan zuten, Skabidean taldearena. Izan ere taldekideetako bat lizasoarra da, eta Gizarte Zerbitzuek egun horretarako kontzertua jarri zuten, eta jendetza bildu zen elkartearen.



## Tunelen berritze lanen erabakiaren zain, Ultzama aldean kezka nagusi



Nafarroako Gobernuak Belate eta Almandozko tunelak zazpi hilabetez itxita egonen zirela azaldu zuenetik, kezka nabarmena sortu da gurean. Izan ere, Gobernuak ez zuen Belateko mendateaz beste alternatibarik proposatu. Horren aurrean zonaldeko alkateak elkartu eta Gobernuari beste alternatibaren bat proposatzea eskatu diote. Horretarako, martxoaren amaieran Arraizko Bentako errepidea itxi zuten ordu erdiz, balioa tentsio puntu bat gehiagorekin utziz Nafarroako Gobernuaren teilatuan. Egoera aztertzeke batzordea sortu da orain Parlamentuak hala eskatuta. Apirilean ondorioren bat izatea aurreikusten da.



## Zer dago Atezko zinegotziaren aurkako margoketen atzean?

Otsailaren 17an Diario de Navarra egunkarian agertu zen albistea. Atezko “Hemengoak” alderdiko zinegotzi eta UPNko kidearen autoan, argazkian ikus ditzakegun pintaketak egin zizkieten. Zinegotziak mehatxu eginez jasotako zenbait dei ere salatu zituen aipatutako egunkariaren arabera.

**D**iarrio de Navarraren albistearen harira, guk gertutik jakin nahi izan dugu gertaera, bertsio ezberdinak bilduz. Margoketak jaso zituen zinegotziarekin hitz egin dugu, baina ez du inongo deklaraziorik egin nahi izan. Bestalde, Atezko alkate den Ezekiel Martinek mintzatu gara, eta bestearen faltan, honen bertsioa ekarri nahi izan dugu lerro hauetara. Izan ere, Diario de Navarra Atezko Udala-rekin harremanetan ez zela jarri aipatu digu, eta hala kontrastatu ahal izan dugu guk ere.

Hasteko, margoketen eta balizko dei telefonikoen aurka dagoela adierazi digu alkateak, eta aldi berean, gaia ikertu dadila eskatu du. Izan ere, Javier Esparzak (UPN) EH Bilduri egotzi zion ardura.

Testuinguruari helduz, zinegotziak Nafarroako bandera berritzea eta erregearen erretratua udaletxean jartze eskatu zuela azaldu zen albistean. Ezekiel Martinek dio lehenengoa baino ez dela egia, eguraldiaren eraginez kaltetuta zegoela bandera eta zinegotziak aldatzea eskatu zuela astearte batez. Ostiral horretan bandera berria eskatu zion idazkariari eta “Hemengoak” taldeko zinegotziari jakinarazi zitzaion, alkatearen arabera. Egun horretan bertan, iluntzean, salatu zituen zinegotziak bere kotxean agertutako margoketak, twitter bidez. Alkateak dio hurrengo egunean, goizez zinegotziari dei egin ziola elkartasuna adierazteko helburuz.



Erregearen erretratuari dagokionez, Ezekielek dio Esparzaren asmakuntza dela “Hemengoak”eko zinegotziak jartzea eskatu zuela. Batzar aretoa 2002an berritu zenetik ez da bertan erretratua egon, eta inork ez zuen eskatu, ezta “Hemengoak” 2007-2011 legegintzaldian alkatetzan egon zenean ere. Alkateak dio idazkariak baieztatu dezakeela hori, 2009. urte-tik baitago Atezko udaletxean.

### Zer egon daiteke honen atzean?

Ezekiel Martinek dio Atezko udalaren garrantzia aldatu egin dela azken urteotan. “Eremu euskaldunera igarotzea, mapa lokalaren erreforman Atetzek izan duen protagonismoa, Aroztegiko kanpina... beste dimentsio bat eman diote biliarari, eta hauteskundearen atarian egonik, udalak egindako lan hori estali nahi dute banderen gerraren diskurtsoa erabiliz” dio Ezekielek.

## Beatriz Otxotorenari saria

**L**izasoko Baserri eskolako kudeatzaileak sari handi bat jaso du Madrilén, emakumeen legunaren harira. “Barraskilo proiektuaren” Mikaela gaztandegiarengatik jaso du “2018ko landa eremuko emakumearen desafioa” saria. 100 proiektu baino gehiagoren artean onena izan da berea.



## Imozko hirigintza planak parte hartze handia

**A**ldi batetik egungo legediari erantzun behar zaio, eta bestetik bilarako jendearen beharretara egokitu. Horregatik, Imotzen, modu parte-hartzailean berritzen ari dira hirigintza plana, eta 24 biztanlek eman dute izena ekainera arte aritzeko.






## Araztegi berria eraikiko dute Aroztegin


**N**afarroako Gobernuak 2015 eta 2021 artean Aroztegiak bezalako berritze lanak egiteko diru aurrekontu bat zehaztu zuen, Ibaiak saneatzeko plan gidarian barnebildu zutena. 500 biztanle baino gutxiagoko herrietan berritze lanak egiteko jarri zuten dirua, 250etik beherako herriei lehentasuna emanez. Besteak beste, joan zen urtean lantzen egindako araztegi berria ordaintzeko erabili zen diru hori.

Osotara 51,2 miloi euroko aurrekontua dago, eta Aroztegiako araztegiaren lanek 155.731,99€-ko aurrekontua dute, eta oso-osorik finantzatuko da saneamenduko kanonarekin.



Gaur egun, Aroztegitik bi hobiren bidez eramaten dira “ur nahasiak” Urepel errekarara, eta hobi septiko horietan tratatzen da ura. Orain, herritik 230 metrora egingen dute araztegiara, eta bi hobi horietako ura bertara eramaten dute. Urari lehen tratamendu bat emanen diote bertan, baina gero biltegitatu eta beste araztegi batera eramaten dute.

Araztegi berriaren eraikuntzak lau hilabetezko iraupena izanen du, eta NILSA enpresa publikoak egingen ditu lanak. Xulapaindik Ultzamara doan errepidean egingen dute. Behin amaituta egonda, batzaz beste 0,14 litro/segundoko emaria izanen du, hau da, 12m<sup>3</sup> eguneko.



### Iritzia: “Hegozentrismoa”

**E**uskal Herriaren nazio ikuspegiari dagokionez, errealitate pertsonala eta objektiboa bereizten ez dituenaren jarrrera politikoa; «hegoalde»



**Miren Amuriza**  
**BERRIA egunkarian**

(Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa), «zentro» (erdigunea) eta «-ismo»-ren (doktrina, joera edo sistema) batura. Adibidez: «Euskal Irrati Telebistaren ardatzetako bat hegozentrismoa da». Hortaz, hegoaldea eta beronen mundu erreferentziala (Espainia) interes eta arreta gune nagusitzat dauzkan pertsona, talde edo erakundea hegozentrikoa izango litzateke. Honako bost ezaugarriok bereizten dute:

Autoirudi distorsionatua eduki ohi du eta mugaren alde bateko eta besteko mugimendu sozial, politiko, kulturalak konparatzen aritzen da etengabe, hegoaldekoak goratuz eta iparraldekoak kuestionatuz: «Martxoaren 8an ere, jende gutxitxo Baionan, ez?». Nekez enpatizatzen du Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako errealitatearekin, beraiei buruzko ezagutza mugatu samarra eduki ohi duelako batez

ere: «Izura eta Izpura, Garazi eta Lohizune... zein da zein?». Besteen kritikekiko hipersentibera izan ohi da: «Maskaradako antzezleak enfoke intimo batetik fotografiatu gura izan ditudalak, inbasorea ni?». Bakarria eta ezkorra, itxikeriak ingurukoengandik urrunarazten duelako eta bere gabeziak azalarazten dizkio-lako. Eta kontrakoa egiten saiatzean ere, sarritan, ez du ipar-hego dikotomia nabarmendu baino egiten.

# Zer ekarriko digu tokiko mapa berriak? (II)

Aurreko hilabetean Nafarroako Toki Administrazioako zuzendari den Xabi Lasarekin mintzatu ginen, tokiko mapa berriaren aldaketa praktikoak jakiteko.

Eskualde eta azpi-eskualdeen arteko ezberdintasuna eta eskumen banaketak azaldu zizkigun, erreforma honen arrazoiak eta erresistentziak, eta baita gure inguruan sortuko ziren aldaketak azaldu ere. Oraingoan gurerako jo dugu, Ultzama aldean egon diren eztabaidak aztertuko ditugu, eta erreformak nola aldatuko duen gure bailaren arteko harremana.

**B**i bailarak izan dute eztabaida eta buru-hauste gehien tokiko maparen erreformaren aurrean: Ultzama eta Atetz. Jakina zen gure zazpi bailarak bananduak geratuko zirela bi eskualde ezberdinetan, baina zehazteke zegoen oraindik bailara bakoitza zein eskualdetan geratuko zen.

Horrenbestez, Toki Administrazioak plazaratutako zirriborroan, hiru bailara proposatzen zituen Larraun-Leitzaran eskualdean (Basaburua, Imotz eta Atetz), eta beste lauak Arga eskualdearen barneko Bailarak azpi-eskualdean (Ultzama, Lantz, Anue eta Odieta). Behin proposamen hori eginda, epe bat zabaldu zen mugaldeko udalerrian eztabaidatu eta zein eskualdetan sartu erabaki zezaten. Egoera horren aurrean bi eztabaida nagusi izan ziren: Alde batetik, Ultzama Larraun-Leitzalde euskaldera joateko tentazioa, Basaburua, Imotz eta Atetzekin batera egoteko; eta bestetik, Atetzen sortutako kezka Ultzamarekin harremanak etetea suposatuz zezakeenari begira. Bailara bakoitzean erabakia hartzeko izandako erabakia ulertarazten saiatuko gara larro hauetan. Horretarako Ezekiel Martin Muxikarekin (Atezko alkatea) eta Arantxa Martinez Urionabarrenearekin (Ultzamako alkatea) mintzatu gara.



Ezekiel Martin, Iruñerriko Mankomunitatearen izenean sari bat jasotzen (martxoaren 18an)

## Atetzen izandako prozesua

**E**zekielek ongi dakizki prozesu honek bizitako gorabeherak, Iruñerriko Mankomunitatearen kontseiluko kide baita, eta gertutik jarraitu du mapa lokalaren erreformaren sortze lana.

Azaldu digunez, hasiera batean Basaburua, Imotz, Ultzama, Atetz, Lantz, Odieta eta Anue "Arga" eskualdean kokatu zituzten, bina prozesuak daramatzan bi urte hauetan aldaketak izan dira, eta Atetzek hasieratik agertu du beldur argi bat, Atetz bezalako bailara

txikiak beste handiago batzuen menpe geratzea, garrantzia oso txikia izanen bailuke eskualde horretan. Horrenbestez, Atetzek, Basaburua eta Imotzek "Mendialdeko" eskualdera jotzea erabaki zuten, eta Ultzama ere hara jotzeko zalantza agertu zuen.

Ondoren, Gobernuak "Arga eskualdearen barneko "Bailarak" azpi-eskualdea sortu zuen, eta eskumen banaketa bat proposatu eskualde eta azpi-eskualdeen artean. Orduan, Atetz analisi prozesu batean sartu zen, eskualde bateko zein besteko alde onak eta txarrak aztertuz. Bi aukera zituen:

1. "Larraun-Leitzaran": Eskualde txikiago bat, antzeko biztanle kopurua duten herriez osatutakoa.
2. "Arga" eskualdearen barneko "Bailarak" azpi-eskualdea: Atetzen erabakitze ahalmena nabarmen gutxitzen duen eskualdea, baina Ultzama bertan egonik, harreman nabarmenak hautsi beharko lirateke: Ikastetxea, gizarte zerbitzuak, berdintasuna, kirola eta abar elkarrekin lantzen baitituzte.

Otsailaren 7an bizilagunei irekia zen batzarra egin zuten, eta jende ugari gerturatu zen. Bertan alde onak eta txarrak azaldu eta iritziak eman zituzten. Hala ere, erabakirik hartu gabe amaitu zuten batzarra. Ezekielek dio erabakirik hartzen ez bada herri galdeketa bat egiten dutela erabakia denen artean hartzeko.

## Ultzamako prozesua

**A**rantxa Martinez alkateak azaldu digu Ultzaman bizitako barne prozesua:

Hasieratik zalantza ugari izan dituzte udal gobernuko kideek, eta bilerak bata bestearen atzetik egin dituzte, bai Iruñean eta baita Ultzaman ere. Xabi Lasa ondoan izan dute uneoro zalantzak argitu eta gomendioak emateko.

Informazio hori guztia eta Udalak zituene zalantzak Ultzamako kontzeju guztiei helarazi dizkiete, haiek ere erabakiaren parte izan zitezten. Hala ere, Arantxak esan digunez, kontzejuen partetik ez dute erantzun askorik jaso, lauzpabost besterik ez.

Kasu honetan, zalantza Atetzen izandako bera zen, "Larraun-Leitzaran" eskualdera joan edo "Bailarak" azpi-eskualdera. Kontzejuek emandako iritziz guztietan azken honen aldeko jarrera agertzen zuten, baina zalantzaz josiriko erabakia zela azalduz.

Orain arteko harremanei jarraituz, Arantxak dioenez, logikoena, Lantz, Ultzama, Odieta eta Atetz elkarrekin jarraitzea litzateke. Baina beste alde batetik, euskararen aldeko pausoak ematen jarraitzeko, Basaburuarekin egoteak garrantzia handia zeukan, bai euskara zerbitzua eta baita gizarte zerbitzuak ere Basaburuarekin batera baitituzte. Hala ere, oraindik ere deus erabakita egon ez arren, "Bailarak" azpi-eskualdetik gertuago dago Ultzama.

### "Bailarak" azpi-eskualde berriaren bilerak

**B**i bilera egin dituzte azpi-eskualde berriko udalerriek. Lehenengo bilera oso orokorra izan zen, eta kezka ugari mahaigaineratu zituzten, kontzejuen egoera berria, esaterako. Xabi Lasari deitzekotan geratu ziren bilera berri baterako. Bigarren horretan finantziarioari dagozkion kontuak azaldu zituen Lasak, aurreko hilabeteko Pulunpen agertutakoa, hain zuzen ere.

Orain erabakiak hartzeko garaia iritsiko da, eta adibide bat jartzeko Irati-Aragoi eskualdean gertatutakoa azalduko dugu. Bertan, "Aurre-Pirinioa" azpi-



*Arantxa Martinez Nafarroako Parlamentuan*

eskualdeko 12 udalerrietatik 9k, azpi-eskualde ordez, eskualde izatea eskatu diote Gobernuari, Xabi Lasa ere erabaki horren parte izanik. Honek erakutsi du zirriborroa aldatzeko aukera dagoela, beti ere udalerriak ados jartzen badira.







# Iraizozko Dorrean, kontu kontari **Antioniorekin**

Otsailaren 27a, egun hotza. Iraizotza joan gara Antonio Satrustegirekin solastatzera. Bezperatik deitu eta etortzeko lasai erran digu. Gu joan eta *Dorrean* hartu gaitu Antoniok. Gizon xaloa, abegikorra eta argia. Eta umore oneko gizona, umore handiko gizona. Eta osasunez ez badabil ongi ere, umorea berekin du, oso-osorik.

Eta bere bizitzako hainbat kontu jaso dizkiogu. Moroak egindako etxea da Dorrea, beltzak egindakoa, hori da erran didana Antoniok. Gure herrian ere badela horrelako etxe bat, moroek egina, erran diot.



## **Haurtzaroa**

### **Zure gurasoak, nor ziren?**

Ama, Martzelina Narvaez eta ate, Esteban Satrustegi, Gartzaungo *Yurdenekoa*. Eta ama hemengoa.

### **Eta zenbat senide?**

Zortzi, errain ditzizut, zaarrenetik gazteenera: Joxe, Vittori, Pilar, Josefina, Isidro, Francisco, Agustín eta ni, Antonio. Lau bizi gaa: Josefina, Pako, Agustín eta ni.

### **Eskolan zenbat lagun biltzen ziñeten?**

Hogeite zortzion'bat edo. Eta hola!

### **Eta zer duzu gogoan? Orduko trasteren bat edo?**

Trasteriek hobeki ttugu ba! Oi, oi, oi! Bein eman giñon satorra eskolara, ta yarri giñon maistra, maipian, izitziagatik. Ta harrek pentsatu segiden nor izain giñen, ni eta bertzia ez dakit, Jesus Mari Barberena edo. Beño ez zigun deklarazi, in zittun iñoneko zerak beño deklarazi ez zigun in. Ta orduen paatu zigun holaxen, liburek paatu bi eskuetan, besoak zabalduta. Ta holaxen, ordu kuarto'at eon izain giñen.

### **Ta zuek erran nor ziñeten.**

Ez, ez, ez, guk ez giñuen erran, ez, ez, ez. Me-kaundiole! Gastigetuko zigun bertze eun pare bateko igual. Ez, ez, guk eutsi! Gu ezetz, gu ezetz eta gu ezetz, eta hartaik ez giñen atra.

### **Noiz artio ibilli ziñen eskolan?**

Ba, orduen hasi ta, errati'aizut, hamiru urtetaraiño edo hola. Hamiru urte ez dakit banittuen, zeatik yoan bear giñuen beien aurrian ibiltzera, alorrian makinean. Bat atzetik eta gu berriz aurrian. Pako atzian eta ni ta Austin aurrian.





## Gazte denborak

### Gaztetako zerbait oroitzapen berezi bauzu?

-Oianean galdu in giñen bein. Auntzek kusteia yoan hemengo gizon batekin, *Yoantzonekoa*, ta elurre zegoen ta lañoa sartu zuen ta galdu giñen. Ta ez giñakien nora giñoazin ta, batek bertziak erraten giñion, hau Olague da, eta bertziak, hau ez da Olague. Eta enkontratu giñen Arraizko bentako'atekin. Bueno, allegatu giñen gu Orkiñe ta han *Zalbatenia*, ataie zabal-zabala zegoen. Ta han yolasian zauden, ta haiek zautu ziguten ta ia zer giñabiltzen. Ta guk nola Arañotzen ibilli giñen...ta galdu in giñela.

-Bai, orain Orkiñen zaudete. Eta haietako bat *Eletana*, eta erakutsiko zigula bidia nondik yoan Iraizotze. Eta hurrek erakutsi zigun.

### Eskola akabatu ta hasi ziñen itxan lanian, ta kontrabandoan ere bai puxka bat. Noiz hasi ziñen kontrabandoan?

Bai, bai, bai, hoixe! Hamazazpi urtetan edo.

### Eta gau-lan hoietan, nondik nora ziñuten ibilbidia?

Hemendik Saiora eta Frantzire berera ere bai; Frantzire hiru bidaje benpin in giñuzen, Esnazuko bentaraiño.

Saiotik Danone gañ hontara. Biramonian hartu-ta Lizesora. Lizeson karretera bazterrian soro miartto'at bazen ta han uzten giñuzen ta handik ttaka-ttaka, autoa tortzen zelaik, segiden kargatu. Oi, oi! Zenbeit aldiz kargatu giñuen Ezponda ta! Ezpondak eman itten zittuen, autoan. Eltsoko Kurro horrendako ere kartzen giñuzen aunditz pakete.

### Gero soldadu yoan ziñen, 22 urtetan. Nora yoan ziñen?

Soldadu, Azpilikueta egon giñen leenik. "De recluta" e! Han pastu giñuen lau edo bortz hillabete eta gero Iruñera karri ziuten: Esquiador-escalador. Ta gu eskiadoreak eta eskaladoreak baigiñen, ni bertze leku batzuetara ez nitzen yoan, beño bai Etxaurire, eskalatzer. Mekauen! Mendi haietaik botzeko! E'nuen nai, ezta, ezta, aittu'ere! Bakizu zer zen? Ze alture? Eta brigadak botatzeko ta botatzeko!

Gero gustora aitzen nitzen! Orain, soka eskuez zapatzen baziñun fuerte, erretzen zizun, beño bertzela, suabe-suabea, majo, lau saltoz beittire.

## Soldadu bukatu eta etxera itzuli zen Antonio

### Itxera torri ziñen, hemen, itxan, yende aunditz...

Hori da ba! Beño opatzen giñuen lana. Ni gero, hasi nitzen yoaten Orkiñe Iñarrean itxera; han aitzen giñen altzurrekin, ta zelaitzen lekuek ta gero harrizko pareta bat itten ta. Paastu giñuzen hiru hillabete. Ta gero, Fermin Txurrukak erran ziren ia nai nuen yoan Arrabera, bazela lana bizpairu hillabete-tako beiñepin, plantatzen, piñua ta abetoa (izaia) ta, nik *-joño!* ez zaida batre gaizki iduitzen!

Guk pezta atrazeatik edozein gauze. Han pastu nittuen bertze lau hillabete. Gero eman (eraman) ziren berriz, bazela markatzen bagoa -bago aunditz atratzen zen- bertze bizpairu hillabete-tako yoan nitzen *Iraguera* -hor da mendi'bet erraten diotena *Iraguerko zokoa*, Ballekoa. Han pasatu nittuen bertze lau hillabete. Eta holaxe!!!

### Noiz hasi ziñen kamionakin?

Kamionakin hasi nitzen laster. Kamiona Martin Zenotzena zen. Hau Zenozko Palaziokoa zen beño bizi



zen Iruñen, ezkonduik zegoen Bidaurretako batekin, Iruñen. Ta honek zun Lecheria Iruñen. Honek bazuen kamiona, beño lanian Co-pelechendako aitzen zen.

### Antonio, zenbat denboraz aittu ziñen hor?

Igual hoeita bortz urtez.

### Nondik nora ibiltzen ziñen?

Erranen dizut: Ireizoz,

Zenoz, Eltso, Gerendiein, Urrizola, Latasa, Anozibar, Ziaurritz eta bertatik Iruñera. Gero, berriz, kanbietu ziguten, bajatu baitzen esnia aunditz, zisterna hoiek paatu baizittuten eta kamion guttiago aski.

### HIZTEGIA:

**SOLASTATU:** hitz egin.

**ABEGIKORRA:** acogedor, hospitalario.



# Olagueko **ahizpa** futbolariak, Nafarroako onenen artean

Jaione eta Oihana Larraiotz Senosiain bixkiak dira, Olaguekoak, eta elkarrekin hasi ziren futbolean. 18 urtez azpiko Nafarroako selekzioan aritu ziren elkarrekin joan zen urtean.

Orain jada ez daude elkarrekin, Jaione Osasunan ari da atezain eta Oihana Ardoien atzelari, eta gainera, Gasteizen egiten ditu ikasketak. Biekin mintzatu gara futbolaz:



*Jaione eta Oihana (ezkerretik eskuinera, biak Ardoi taldeko jokalaria zireneko partida batean*

## **Ettxeko biak ari zarete futbolean maila ona erakusten, nola hasi zineten futbolean?**

**JAIONE:** Gutxi gora behera 11 urterekin hasi ginen. Klaseko patioan klasekide guztiok jolasten genuen batera eta mutilak futbolean aritzen zirenez saltsa horretan murgildu ginen.

Bestalde, herrian, Olaguen, mutilekin ibiltzen ginen eta batzuetan frontoian baloiarekin jolasten ginen.

**OIHANA:** Itxaso, futbolekin mutilekin jolasten zuen kuadrilako bat, nesken talde bat sortzen saiatzen ari zen, eta guri ere nahia piztu zitzaigun. Aurretik sekula baloirik ukitu gabe ere, apuntatzea erabaki genuen. Jaione atezain eta ni defentsa moduan.

## **Zergatik futbolekin eta ez beste ezertan?**

**OIHANA:** Proba egiteko aukeraketa bat izan zen, hau da, ez genekien gustatuko zitzaigun ala ez. Atletismoa egiten genuen orduan eta beraz, kirol aldaketa egin genuen.

**JAIONE:** Futbolekin aritu baino lehenago beste kirol asko egin izan ditugu: eskalada, dantzak, patinajea, atletismoa...

Azkenean futbolekin jolasten hasi nintzen nire lagun minarekin eta neska talde bat osatzea erabaki genuen. Oihana ere taldea osatzera animatu zen, azken finean dena elkarrekin egiten genuen eta.

## **Nola iritsi zarete hain maila ona izatera?**

**JAIONE:** Konturatu gabe nik uste. Gure lehen futbol urteak Atarrabia futbol taldean egin genituen (2010-2014), atariko futbolekin. Hurrengo bi urteak Antsoingo futbol taldean, (Gazte Berriak), jada futbol 11-n. Nahi gabe ikasten joan ginen eta joan zen urtean beste talde batetik deitu ziguten bioi, Ardoi-tik ain zuzen ere.

**OIHANA:** Atarrabiako taldean kuadrilako 10 bildu ginen, eta osotara 14 neskaz osaturiko taldea lortu. 4 urtez egon ginen bertan, eta oso gustora.

## **Futbolekin onak izateko gaitasuna familiatik hartu duzue edo zuek hasi zarete?**

**OIHANA:** Egia esanda, ez dakit seguru, neure burua ez nuke ona izendatuko, baina Jaione bai. Jaione maila onean egoiteaz gain, talde indartsu batean dagoelako atezain moduan.

**JAIONE:** Onak izateko esaten duzun gaitasun hori ez dakit, oraindik bide luzea daukagu aurretik. Ez dut uste, baina esan beharra dago nere aita eta amaren parteko aitona haien garaian atezainak izan zirela. Hori ez da ni atezaina izatearen arrazoia baina datu kurioa da.

## **Elkarrekin aritu zineten hasieran, baina orain bata osasunan eta bestea Ardoi taldean. Zer moduz zabiltzate?**

**JAIONE:** Hasieran pena eman zidan, denbora asko izan garelako elkarrekin. Lehenengo entrenamendu eta partiduetan arraroa egin zitzaidala esango nuke, beti partiden bukaeran jokaldiak, geldialdiak... berarekin komentatzen



Jaione

nituelako, baina jada ohitu naiz. Berriz talde berean elkarrekin egotea gustatuko litzaidakeela esan daiteke.

OIHANA: Orain arte betidanik elkarrekin aritu gara, 7 urtetan zehar. Aurten bereizi egin gara eta oso gogorra izan ez zen arren, ezberdina eta arraroa izan da. Orain faltan botatzen dut bera nire taldean egotea eta pena ematen dit.

#### **Eta nafarroako selekziora iristea lortu duzue, zer nolako esperientzia izan da?**

OIHANA: Nafarroako selekzioko esperientzia zoragarria izan da, beste lekuetako selekzioen aurka jokatzeari, neska berriak ezagutzea... futbolearen aritzen zaren bitartean, oroitzeko modukoa. Gainera, jokalariei famatuaren aurka jokatzeko aukera izan dut ere: Aitana Bonmati, Maite Oroz.. eta horrek motibazioa sortzen du.

JAIONE: Esperientzia izugarri polita izan da. Ez genuen deia espero eta horrek ilusio handia ematen du, eta nahi ala ez motibazio gehiagorekin jolasten da.

Selekzioarekin hainbat tokitara bidaiatu dugu eta beste pertsona asko ezagutu ditugu. Hori inoiz ahazten ez den esperientzia da. Gainera, beste komunitateetako jokalariei hoberenen aurka jokatzeari asko ikasten da eta gu talde oso onen aurka jolastu dugu, Kataluniako talde indartsua adibidez.

#### **Bata atezaina eta bestea jokalaria, zergatik?**

OIHANA: Egia esan, ez dut uste arrazoirik dagoenik. Taldean hasi aurretik ez nuen sekula baloirik ukitu, eta entrenatzaileak erabaki zuen nire posizioa. Jaionek aldiz, aurretik herrian eta lagunekin atezain moduan jartzea gustoko zuen. Hala ere, ez genuen arrazoi konkreturik.

JAIONE: Ni, Oihana futbolearen hasi baino lehenago, nire lagun minarekin aritzen nintzen jolasten eta berak lehenagotik jokalariei moduan jolasten zuenez, ni atezain moduan jartzen nintzen tiroak egin ahal izateko. Jokalariei moduan aritzea ere asko gustatzen zitzaidan, baina klaseko patioetan klasekideek atezain moduan jolasteko esaten zidaten, ongi egiten nuelako. Oihana jokalariei jartzen zen eta hala jarraitu genuen futbol taldeetan.



Oihana

#### **Ikasketak eta futbola uztartu behar dituzue, Oihana, zuretzat bereziki zaila da kanpoan egonda?**

OIHANA: Bada egia esanda, ez da horren erraza. Kanpoan egonda entrenatzera txirrindulaz 25 minutu ditut eta batzutan denboraz larri ibiltzeaz gain, unibertsitateko praktikak arratsaldean izateak entrenamenduak galarazten dizkit. Bestalde, talde ezberdin batekin entrenatzen nagoenez, ez da berdina bueltatzen naizenean, talde dinamika ezberdina dagoelako. Ostiraletan entrenatzera ailegatzeko presaka nabil beti eta ama kotxearekin zain izan beharra dut, bestela ezin naizelako etxera bueltatu.

#### **Emakumeen kirola ez dago gizonena bezain baloratua, eta diferentziak handiagoak dira agian futbolean, nola ikusten duzue zuek?**

JAIONE: Betidanik futbola "gizonen kirola" izan da eta oraindik bide handia dago aurretik. Gizonen futbola askoz baloratuagoa dago, haien soldatak ikaragarri altuak dira, emakumezkoenak aldiz, ez dute bizitzeko adina ematen, eta futbolaz aparte lan egin behar da.

Egia da azken 20 urteetan egoerak hobera egin duela baina hala ere aldea konparaezina da. Gaur egun, mutilezkoen talde handiek emakumezkoen taldeak sortzearen apustua egin dute. Barça eta Atletico taldeek, zein Iberdrolak (ligaren babeslea) pausu handia eman dute. Gutxinaka emakume gehiagok jolasten dute eta maila gora egiten ari da.

Espero dut hemendik urte batzuetara pausu gehiago ematea eta jendea emakumezkoen futbola ikustera gehiago animatzea.

OIHANA: Egia esanda asko dago hobetzeko. Alde handiegia dago bi generoen arteko futbolaren artean. Diruaren aldetik penagarria da gure egoera haienarekin alderatuz. Gizonezkoek bigarren maila profesionalean irabazten duten dirua gehiegi iruditzen zait. Emakumeok, aldiz, zortea dugu ordaintzea tokatzen ez bazailagu. Besterik gabe, ezin dira konparatu, beste dimentsio bat dela esan baikenezake. Bukatzeko, inbertitzen den dirua ere oso gutxi da, eta hau ez bada aldatzen, gure futbolak ez du gora egingo.



ARDO FREXKOTIK

# Jota bertan hil

Esaldi hau modan egon dena da eta gazteek, aunitzek, erabili izanen dute. Eta entendatu, denak.

Jakina, **hil** aditz arrunta da, denok dakiguna zer den eta hiru urtez gorako haurrek ere badakitena. Eta **akabatu**? Honek ere adiera batean hil esan nahi, halako zentzu gutxiesgarria edo duena gainera. Hau ezaguna ahal da? Edo **garbitu** hitza, hil esanahiarekin? Edo "**seko** gelditu zen" bezalako esaldiak? Beldur naiz gaurko gaztetxoek ez dakizkitela hitz hauek.

**K**arrikan ikasi genuen euskaraz, munduko herri guzietan bezala. Eta heriotza ere gure bizitzan presente zegoen. Orain, zoritxarrez euskara karriketatik desagertu da eta heriotza, aldiz, ez ikusia bihurtu zaigu.

Gure haur denboran, nahiz urte gutxi izan, heriotza ere bagenuen ezpainetan, modu batean eta bestean. Orduan jaiotza eta heriotza begi bistakoak ziren; izan etxekoena edo auzokoena, pertsonena nola aziendena, etxeko oiloena edo kanpoko hegaztiarena, dena baienuen hurbileko, etxeko, eta askotan bihotzeko.

Gure haurtzaroko hitzak dira denak, oso gure baitakoak! Eta hizketa ere horren arabera gure genuen: "jota bertan hill" "jota akatu" "jota garbittu" "jota itto", "jota txikittu", "jota xehatu"...

Esaldi gogorxoak zuretzat agian, eta gehiago haurren ezpainetan entzuteko. Baina beste garai batzuk ziren, lehengo denborak... Jakina, bai, oraingo begiekin begiratzuz, gogor xamarrek ere badira.

Gure ihardukian, garai haietan normala zen, erabat normala, hitzetik hortzera erabiltzen baikenituen hitz eta esaldi horiek guziak. Eta inoiz ez ziguten *errexarik* egin, inor ez zen haserretu gurekin hitz horiengatik. Bekatu handiagorik bazegoen nonbait. Dударik ez egin, dena bekatu zen garai hartan ez zen zaila handiagoak topatzea!

Dena dela, helduen aurrean oso gutxitan genituen horrelakoak ibiltzen, kuadrillan bai, baina beti zaharragoengandik urruti, eta zer esanik ez gura-soengandik. Batez ere ez zen komeni auxerdika agertzea! Hori zen okerrik handiena.



Gomik egindako biñeta





ARDO FREXKOTIK

**E**ta zer esan, hitz eta esaldi horiekin norbaiti heriotza, norbaiti kaltea desiratzen zitzaionean?

Bertan hillen al'haiz. Derrepentian hillen al'ttuk! Seko geldittuko al'duk, Batebatian hillik geldittuko al'duk... Hauek gogorrangoak ziren. Edo beste hauek ere ez dira ba bigunak: *hiltzeko hobia zeok, lepoa hautsiko al'duk, lepoa biurrittu bearra zio, kaskezurre hautsiko al duk*. Eta "ojala..." zenbat ibiltzen genuen? *Ojala hillen balitze! Ojala okerra geldittuko balitze. Ojala hatsik gabe geldittuko bahitze!* Ojala, ojala, ojala eta ojalateroak!

Gure ihardukian normaltasun osoz sartzen genituen esaldi hauek. Batzuetan gorroto punta batekin, edo haserre biziz. Serio-serio, erdi brometan edo barre egiteagatik. Txantxetan ez gutxitan... gure hizkera zen hori. Azken batean dena zegoen entonazioan, begien dirdiran eta begitartean. Dena dela, ez didazue ukatuko aho hizkuntza ona ez zenik!

Errespetuko gizonak ez zituzten horrelakorik esaten, beharbada Igoako eta Arrarasko apezaren Don Fermin Iriarte kenduta. Ehiztari eta arrantzale famako apezaren, hizketan ere bilorik gabeko mingaina. Horrela kontatu zidan behin adiskide handia izan nuen basaburuar batek:

*"Igoako Bengoetxeak, garai hartakoak, as-tapito samarrak izaki eta haietako mutilzahar batek ezbeharren bat bota omen zuen ez dakit Igoako elizaren kontra edo, beharbada, apezaren kontra."*

*Eta honi herritarren batek kontatu, eta Don Fermin:*

*-Lehenbiziko lanean hasten delarik besoak ihartuko ahal zaizkiok!"*

*-Besoak iartu hi, Joxe! Hau're ez ote duk ba izain gu mutikook biño fiñagoa izatitak? Apezan atialdie!!!*

Orain ardo frexko-frexkoa edatera joan beharko diagu ostatura kontu zaharrak berritzera eta berriak trukatzera. Aire, goazen ostatura, ez zegok hemengo mutiko bihurri hauekin burutzerik eta!

## HIZTEGIA

**HILEN AHAL HAIZ!** Ahal hori h-rekin da. Galderak berriz gabe. Etorriko al zara eta gisakoak.

**ADIERA:** esanahia.

**GURA BAITAKOAK:** gure-gureak, barne-barnekoak.

**ERREXTA**=haserre, errieta (Errexta hemengo hitza da)

**AUXERDI, AUXERDI HAUNDI.** Espantuka, harroke-riak boteaz dabilenari esaten zaio.

**GORGORXKOA, GAIZTOXKOA...**gogor samarra, gaizto samarra...

**IHARDUKIA:** Hizketa, conversación.

**HITZETIK HORTZERA:** noiz nahi, pentsatu gabe, erraztazun osoz...


**TXANTXA:** broma.

**BEGITARTEA:** Aurpegia, bisaia.

**BILO:** ilea, gorputzekoari esaten azio, ez burukoari.

**BURUTU:** Baditu adiera bat baino gehiago. Hemen ezin karrerarik egin esan nahi du. Oso-oso arrunta da, eta ederra. Gazteetan ez dut entzuten.

**“Oso harreman gertua daukat jendearekin, imajinatzen dut estudio handi batean ez dagoela hainbesteko harremana bezeroekin”**



**Arkitektoa zara, bulegoa gurasoen etxean duzu, zertan datza zure lana?**

Mota askotariko gauzak egiten ditut, arkitektoa naiz baina gestioa ere tokatzen zait. Eskualde honetan zaharberritzeak egitea, etxebizitza berriak, eskala ez oso handian ekipamenduak jabetxeetan eta lokal publikoetan egitea, eta abar. Egunerokotasunean nola laburbiltzen da hori? Bada bulegoan egoten naiz eta gero kotxea hartu eta obretara joaten naiz, bezeroekin elkartzen naiz.

**Zer proiektu dituzu orain?**

Eltzaburun bertan etxe bat zaharberritzen ari naiz eta Erripan beste bat. Imotzen bizikletaren zentroa ari gara egiten, Plazaolako biltegia zen eraikinean, pasaden urtean irabazitako lehiaketa publikoa da hori. Ostatu txiki bat dauka eta bizikletak konpontzeko biltegi bat izango du, Plazaolako bidean dagoelako eta gerorako Europako bide batekin lotuko dutelako. Basaburuan udalaren lokal txiki bat zaharberritzeko proiektua diseinatzen ari naiz, Orokietan ere plaza bat zaharberrituko dugu. Ez dira oso jarduketa handiak, baina denetarik egiten dugu.

**Polita izango da zure herrian eta eskualdean proiektuak aurrera eramatea, ezta?**

Bai, bai, nire lanean oso harreman gertua daukat jendearekin, imaji-

natzen dut estudio handi batean ez dagoela hainbesteko harremana bezeroekin. Egia da niri hori gustatzen zaidala, beti gustatu izan zaizkit gauza teknikoak baina giza harreman horiek alde batera utzi gabe. Eta puntu positibo hori badauka nire lanak.

**Zergatik erabaki zenuen bulegoa hemen jartzea?**

Berez ez nuen pentsatuz erabaki, baina erabaki sendo bat hartu behar izan nuen hau berarekin ekarri izan zuena eta dena aldatu zuena. Ikasketak bukatu berri nituenean lagun batek eskaini zidan bere etxea zaharberritzea, Ziaurritzen. Aldi berean momentu horretan bertan beste eskaintza bat egin zidaten, kanpoan lan egiteko, Patxi Mangado arkitektoarekin Mallorkara joateko, hain zuzen ere. Momentuan ez nintzen konturatu gerora hain garrantzitsua izango zenik, herriko proiektu bat aukeratzea kanpora joan beharrean, horrek ekarri du orain eskualdeko lan hauek izatea, lagunak eskainitako lana onartzea ekarri baitzituen hurrengo proiektuak.

**Ez duzu inoiz pentsatu Iruñeara edo hiri batera joatea?**

Egia da hemen egon arren beste ingeniariaritz batzuekin kolaboratzen dudala: Ayerdi Ingenierosekin -hemengo ingeniaria da-, eta Latorekin. Beraingana joaten nintzen lehen, baina duela hiru bat hilabete beraiekin kolaboratzen jarraitzea erabaki nuen

Ainara Mutuberrua Larrayoz, 32 urteko eltzaburuarra, arkitektoa da eta Eltzaburun bertan, gurasoen etxean, dauka bulegoa. Eltzaburuko Bentakoa da ama eta Itxolazaingo etxekoa aita. 2009an bukatu zituen ikasketak eta arkitekto batekin Mallorkara joateko eskaintza izan zuen arren, geratzea erabaki zuen. Jendearekin gertu lan egiteko aukera ematen diola da gehien atsegin duena.

baina beste modu batean, haiengana joan gabe. Momentu honetan ikusten dut lana badaukadala hemen eta gustatzen zait bulegoa hemen izatea. Badirudi beti Iruñiera joan behar gara eta hasieran pentsatzen nuen “nola izango dut bulegoa Eltzaburun?” baina badauka bere puntu positiboa ere, zergatik ez! Bulegoak egon daitezke herrietan ere.

**Azkeneko urteetan arkitekturan lan egitea ez da erraza izan, zer moduz bizi izan duzu hori?**

Bai, 2009an bukatu nuen, krisi egoera batean. Baina gauza txikiak egin ditudanez eta asko mugitu naitenez gauza ezberdinak egiten eta ingeniariaritz hauekin kolaboratzen, beti izan dut lana. Askok mugitu behar izan naiz eta oso pozik nago, baina egia da kostatu egin zaidala.

**Hemendik aurrera zer asmo duzu?**

Nire erabaki garrantzitsuena hemen gelditzea izan da, momentuz behintzat. Orain laguntzaile bat hartu dut, probatzeko zer moduz. Egonkortasuna lortzea da nire helburu nagusia. Gerora erabakiko dut gurasoen etxean jarraitu edo bulego bat bilatuko dudan, Ultzaman coworking bat egin behar baitute, adibidez. Oso ongi nago gurasoen etxean baina ez da guztiz profesionala. Eskualdean zaila egiten zaigu lokala bilatzea ni bezalako profesionali, gure kabuz lan egiten dugunoi.

# IV. ARGAZKI LEHIAKETA



1. SARIA: 300€

2. SARIA: 200€

3. SARIA: 100€

PULUNPEK argazki lehiaketa bat antolatu du aurtengo ekitaldirako.

Lehiakideak: Hemen bizi den edonork har lezake parte, baina gutxienez urtebete behar du hemen bizi dela. Errolden bidez ziurtatuko da baldintza hau.

Argazkiak aurkezteko epea: maiatzaren 22a azken eguna.  
Lehiakide bakoitzak bi argazki bakarrik aurkez ditzake.

Lehiaketako arauak nahi dituenak eska ditzake helbide honetara, eta emailaz igorriko dizkiogu: [ametzake@gmail.com](mailto:ametzake@gmail.com)

# Hiru inugurazio handi gurean

Atetzen, Ultzaman eta Basaburuan izan dira inaugurazioak, eta hiruetan, bertako biztanleendako izanen duten eragin positiboa azpimarratu dute, zerbitzu berriak sortuz eskualdean. Ttikiena haur eskola, Izarpe Kanpina eta Lizasoko "Barraskilo Proiektua" dira:

## Aroztegin, Izarpe kanpina

Ainhoa Gaston, Alfonso Serrano, Fernando Arriazu, Marisol Calzado eta Marta Gastonek ametsa egi bihurtu dute eta lan askoren ondoren, Izarpe kanpinaren atea irekitzea lortu dute.

Bungalowak, autokarabank, partzelak, "glampinga"... akanpatzeko modu horiek ditu kanpinak, baina gure bizilagunendako interesei begirada jarritz, zerbitzu aunitz azpimarratu ditzakegu.

Aroztegiko kanpingak denda bat eta ostatu bat ditu, bailarako bizilagunen elkargune izan daitezkeenak, biztanle horietako batzuek adierazi digun bezala. Eta haurrendako zein kirolariendako eskaintza ere badu, jolas



parke zein igerilekuarekin. Inaugurazio ekitaldian, Atezko alkatea zein inguruko alkateak egoteaz gain, Nafarroako Gobernuak landa garapenerako kontseilari Isabel Elizalde ere egon zen, Cederna-Garalurreko kide oiha, proiektuaren laguntzaileetako bat.

## Jauntsaratsen Ttikiena eskola

Ttikiena haur eskolak hainbat garai eta leku ezagutu ditu, Aizaroztik hasi, Etxalekutik pasa eta jaunstaratsen egonkortzeraino. Egonkortasun aroan sartu da orain, eraikin berria guztiz amaituta egonik.



Martxoan inauguratu arren, lehenagotik martxan zegoen, ikasturte hasieratik hain zuzen ere, beharrezkoa bai-tzen orduan hastea, nahiz eta guztiz amaituta ez egon. Jadanik amaituta dago, eta ikasturte honetako azken txanpan sartzeaz gain, datorren ikasturteari begira ere jarri dira udalak eta hezitzaileak, aurrematrikulazio kanpaina igarota.

## Lizason "Slow food" eskola

Bioeraikuntzaren inguruko Lanbide Heziketako ikastaro baten bidez eraki zuten "Barraskilo proiektuaren" eskola 22 ikaslek. Eta eskola horren barnean egin zen "Slow food" eskolaren inaugurazioa Ultzamako zein kanpoko jendearen presentziarekin.

Martxan jarriko da jada munduko janari mantsoko lehen eskola. Inguruko eta denboraldiko produktuekin lan egiteko asmoa dute hainbat tailer eta ikastaroren bidez. Pasta, ogia, esnekiak, postreak... horiek izanen dira ikastaroetako batzuk.

Eta proiekturik handiena gaztandegi baten sorrera izanen da, apirila eta ekaina artean emakumeendako bioeraikuntza ikastaro baten bidez eraikiko dutena. Eta bertan

genero biontzaren biktima izan diren emakumeek egiten dute lan. Jantoki bat ere izanen dute, desgaitasunen bat duten pertsonen kudeatuko dutena, eta beste bi eraikinak, kultura eta musikari eskainita bata eta ingurugiro hezkuntzari eskainita bestea, ardi latxa protagonista izanik. Honela "Barraskilo proiektuaren" lau eraikinak edukiz



# Negua gehiegi luzatzen ari da, baina enararentzat ere



 I, Maleno

**E**gutegiak dio Martxoaren 21ean hasi dela udaberria, baina lehiotik begiratu eta elurra dario berriz ere. Negua hasi zenetik bostgarren aldia izan da hau, gutxienez, eta baton bat nazkatuta egongo da, gaur egungo bizimoduan oztopo gehiegi jartzen baititu elurak. Hala ere, onartu behar dugu ez dutela zerikusirik duela 20 urteko elurteekin, horiek bai benetazko neguak! Edonola, elurra egiten duen bakoitzean, eguneroko bizitzan mugak jartzen dizkigu eta hara non, ez bakarrik gizakioi, aurten badira ohiturak aldatu behar izan dituzten beste izaki batzuk: hegaztiekin, alegia.

Hemen eguraldi hotza bizi izan dugula iruditzen bazaigu, zer esanik ez iparraldeko dauden herrialdeetan. Horregatik, Seo Birdlife Euskadik adierazten duenez, zenbait txori ohi baino hegoalderago etorri dira, janari eta tenperatura epelagoen bila. Hegazti migratzaileek, esate baterako, euren egutegia aldatu egin dute. Enarak beranduago etorri dira gurera, adibidez, eta ohi baino lehenago mokolodiak.

Baina gaia ez da txantxa, izan dugun eguraldiak txorien bizirautea arriskuan jar dezake. Klima al-


daketaren ondorioz, geroz eta zailagoa egiten zaie zenbait espezieri egoera berriei ohitzea. Ondorio larrienetakoen artean, elikaduran duena da. Hotzak eragina du ornogabeengan, batik bat, hegaztien janaria diren zizare eta intsektuetan. Elikadurarik gabe espezie migratzaileek ez dute euren bidaiekin jarraitzeko behar bezalako energia lortzen. Jatorrizko lekuetan zuten eguraldia aurkitzen dute, hartatik ihes egiten ari zirelarik, beraz, ezusteko lan bikoitza egin behar dute hegoalderago hegan egiteko. Halaber, enarak ugalketa eta hazkuntzarako prestatzen egon beharko litzateke ordurako, eta SEO Birdlife ez daki zer ondorio izan dezake atzerapen honek. Dagoeneko hildako enarak aurkitu dituztenen zenbait mezu jaso dituzte.

Momentuz, haien mugimenduen jarraipena egingo du erakundeak, urtero bezala. Modu horretan hegaztien beharrak ezagutzen dituzte eta ohiko habitat gisa aukeratzen dituzten lekuen babesa sustatzeko lan egin dezakete. Hala ere, klima aldaketak sortzen duen beste arazo bat da hau, eta konponbideak gizartearen inplikazio globala eskatzen du.

# Urtebetetzeak



**HARITZ**



**MIKAELA**



**MAREN**



**ASIER eta  
HAURTZAI**



**PEIO**

## Josu Santxo Biurrun joan zaigu



Aurtengo neguan joan zaigu, batere uste ez genuela, Josu Santxo Biurrun, Eritzeko gizon ona. Abenduaren 26an utzi gintuen betiko Josuk bere bizikletarekin ibilaldi bat egitera atera zenean. Airean joan zaigu! Eta hemen utzi gaitu, hustuz hustu doan herrialde eder honetan, inoiz baino bakartiago. Inoiz baino bakartia-go diot, Josuk aunitz baitzezakeen eta aunitz zulo betetzen baitzuen gure bizitzan...horrengatik diot bakartia-go. Eta, gainera, gero eta jende gutxiago bizi garelako bertan.

Urteak joan dira gure alderdi honetara etorri zela, Labasora. Karmen Gaskuerekin ezkondu eta nora etorriko eta Karmenen familiak, bertze aunitz familiek bezala, utzi zuen ibarrera. Bai, urte aunitz joan da. Berrogei urte? Edo gehiago Iruñetik hona etorri zirela. Denak Iruñera eta Josu eta Karmen hona.

Eta hori izan da Josuren bizitza, urateen kontra ekitea, eustea, eta gure arbasoen sokari heltzea. Eta horri guziari ekiteko, zer hoberik Atezko jende guziaren herrikide eta adiskide izatea baino. Bai, gutxi gara eta beharko dugu elkarrengana bildu, elkarri besoz beso, lotu eta aitzina jo! Hor erakutsi zuen Josuk bere benetako izaera, politika eta ideologia guzien gainetik dago herrikide izatea. Denen laguna...denekin solastu eta kezkak eta pozak partekatu.

Herri ttikia izanagatik, hor ibili izan zen denen aitzinetik, ihoteak berpizterakoan edo Atezko Eguna sortzerakoan. Bazitekeen eta egin zuen. Hogeita bortz urte pasa dira geroztik.

Hor genuen bere kemena eta ideiak jarritz; hor genuen, Euskal bestak Aroztegin antolatzerakoan, edo hitzaldiak prestatzerakoan edo Kantuz ekimena jaiotzerakoan. Gurekin, aitzinean beti, euskal dantzak edo bertze erakusteko eta hedatzeko saio luzean –sei urte honezkero.

Edo euskarazko ikastaroetan, hainbat maite eta borrokatu zuen gure hizkuntzaren berpizte lanetan. Beti hor, Pulunperen sorreran, bere ibilbidean laguntzen...

Josu, beti hor izan zaitugu, trebeena eta ideiarik hoberena aldarrikatuz, elkarrekin lanean eta besta egitean ere bai. Beti elkarrekin.

Josu, bakar samar gelditu gara. Lehen gutxi ginen. Eta orain?

Gutxi gara? Gutxiago izan nahi ez badugu, konpondu beharko dugu elkarrekin. Josuk utzi gaitu, baina irakaspen ederrik utzi digu. Eta ez genituzke atzendu behar. Gure esku dago gure geroa, Josu, zuk erakutsitako bidea segitzea dugu egin beharrekoa. Gutxi gara...baino bizitza dugu zain. Negua luze joan da.



## 2017ko **abendua** eta 2018ko **urtarrila** eta **otsaila**.

Gure alderdian, aipatu denboran izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

### Jaiotzak:

#### BASABURUA

**GOA**

Iara Arano Etaio, Ibai eta Alaiaren alaba, Igoako Arraldetxikin sortu zen 2017ko ilbeltzaren 5ean.

#### ULTZAMA

**ARRAITZ**

Oinatz Aranatz Barberena, Gorka eta Maiderren semea, Arraizko Sabatenean sortu zen 2017ko ilbeltzaren 28an.



*Ibai eta Alaia, Laratxorekin*



*Maider Oinatzekin*

### Heriotzak:

#### ATETZ

**ERITZE**

Josu Santxo Biurrun, abenduaren 26an hil zen. Eritzeko Elizaldeko nagusia.

#### ZIGANDA

Carmen Bildarratz Arregi, ilbeltzaren 17an. Larrainkoneko etxeakoandrea.

#### BASABURUA

**BERUETE**

Juan Eratsun Ripa, otsailaren 5ean. Txaseneko nagusia.

#### OROKIETA

Lucio Etsain Altsua, ilbeltzaren 17an, Luzioren bentako nagusia

#### ITSASO

Maria Josefa Sala Huarte, ilbeltzaren 1ean. Juantxeneko etxeakoandrea.

Julia Zubillaga Pellejero, otsailaren 15ean. Zurgifieneko alaba.

#### ODIETA

**OSTITZ**

Inma Garrues Bizkarrondo, urtarrilaren 10ean. Ronkalenako etxeakoandrea.

#### ERRIPA

Pedro Gerendian Etxandi, urtarrilaren 14an. Etxeberriko semea.

#### ULTZAMA

**ALKOTZ**

Josefina Apeztegia Gaskue, urtarrilaren 20an. Marimigeleneko etxeakoandrea.

#### ARRAITZ

Eusebia Ariztegi Iragi, abenduaren 24an hil zen. Galbarneko etxeakoandrea

#### LARRAINTZAR

Juan Bautista Legarra Martija, abenduaren 6an, Eskoletxeko nagusia.

### GURE OROIMENEAN IZANEN ZARETE



*Josu Santxo*



*Carmen Bildarratz*



*Lucio Etsain*



*Josefa Sala*



*Julia Zubillaga*



*Inma Garrues*



*Josefina Apeztegia*



*Eusebia Ariztegi*



*Juan Bautista Legarra*



## NEUMÁTICOS BETELU

**Juan Alonso Ortiz**

Tailer mugikorra

Pneumatikoen aldaketa

Zulaturako pneumatikoen konponketa

Erdiko karrika, 8A

Aizarotz (Baasaburua)

  [info@neumaticosbetelu.es](mailto:info@neumaticosbetelu.es)  
**646 47 41 66**

-Zuk nahi duzun tokira joango gara zure  
pneumatikoak konpontzera  
-Kostu gehigarriarik gabe kontsultatu prezioak  
-Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu



**Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak**  
**Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak**  
**Boletinak eta Ziurtagiriak**

# KARIKOLAR

## ELEKTRIZITATEA

 **629 31 53 32 - 722 766 835**

 **Lizaso**

 **karikolaregoitz@gmail.com**



## DABID ELIZONDO PINTURAK

**DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA**

**TEL.: 678 623866**

**argapin@hotmail.com**

**ZIAURRITZ**

**gotelet-a kentzea / paretak leuntzea**  
**fatxadak zaharberritzea**  
**iragazgaizteak (impermeabilizaciones)**  
**kalitatea eta garbitasuna**  
**aurrekontuak konpromisorik gabe**

